

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZANGO SAILA
Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Dirección de Atención a las Víctimas de
la Violencia de Género

Sexu-jazarpena eta Laneko sexuagatiko jazarpena

900 840 111

**Genero-indarkeriaren Emakume Biktimeen
Arretarako 24 orduko telefonoa**



Genero-indarkeriaren
Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

Aurkezpena

- Laneko sexu-jazarpena edota sexuagatiko jazarpena genero-indarkeria gauzatzeko beste modu bat da. Horrela, lan-giroan bertako eta ikusezin bihurtu da.
- Horregatik, arazoa antzematea eta horri heltzea erraztuko duen informazioa, baita horri aurre egiteko aukerak ere ekartzea garrantzitsua da.
- Genero-indarkeriaren emakume biktimei laguntzeko 24 orduko telefono bidezko arreta zerbitzua (900 840 111) horrelako edozein egoera identifikatzen eta irtenbidea ematen laguntzeko baliabide espezializatua da.

Zer da? ...

... sexu-jazarpena?

Sexu-jazarpentzat hartuko da pertsona baten duintasunaren aurka jotzea helburu edo ondorio duen edozein sexuagatiko jokabide, ahozkoa edo fisikoa. Bereziki, larderiazko inguru laidogarria edo iraingarria bilakarazten badu.

... sexuagatiko jazarpena?

Sexuagatiko jazarpentzat hartuko da pertsona baten duintasunaren aurka jotzea eta larderiazko inguru laidogarria edo iraingarria bilakaraztea helburu duen sexua-ren araberako edozein jokabide.

Nola ezagut ditzakezu egoera horiek?

- ! Zirriak eta imurtxiak egiten badizkizute, edo nahita ukitzen bazaituzte; Beharrik izan gabe zu ukitu edo ukitze fisikoa...
- ! Lizunkeriaz begiraten dizutenean edo konnotazio sexuala duten zeinuak egiten dizkizutenean, txistukadak, keinuak...
- ! Gogoz kontra mezu elektronikoak eta testu-mezuak jasotzen badituzu edo sexu-edukiak dituzten gutun anonimoak jasotzen badituzu...
- ! Iruzkin edo iradokizun sexualak egiten dizkizutenean, sexua gai duten txistek kontaktzen dizkizutenean edo, harira etorri gabe, fantasia erotikoei buruz galdetzen dizutenean...
- ! Sexu-mesedeak argi eskatzen dizkizutenean, batzuetan laneko sustapenari loturik...
- ! Lan-eremuan emakumeak egoteari buruz edo zure sexua-ren arabera lan egiteko gaitasunari buruz mespretxuzko berbak daudenean,...

Laneko sexu-jazarpena edota sexuagatik jazarpena dakarten jarrerak ondorioak dituzte lan-bizitzan zein ohiko bizitzan.

Lan-ingurunean

- Produktibitate txikia.
- Lan-kargak handitzea.
- Absentismoa.
- Motibaziorik eza.
- Lan-itxaropen gutxi jasotzea.
- Ahalduntzea mugatzea.
- Errudun sentimenduak.
- Kontatzeari beldurra, lotsa,...
- Lan-jardunari buruzko erreferentzia txarrak.
- Bidegabeko kaleratzea.

Eguneroko bizitzan

- Antsietatea, depresioa,...
- Lorik eza.
- Bizi-itxaropenen pertzepzio txikia.
- Eguneroko lanetan kontzentratzeko zailtasunak.
- Komunikatzeko arazoak.
- Gizartetik bakartuta.
- Haserrekortasuna.
- Harreman pertsonaletarako arazoak.
- Gizarte-harremanetan arazoak.

Zer egin dezakezu?

Ez utzi lan egiteari, eman zure egoeraren berri enpresa batzordeari, sindikatuari edota ordezkari sindikalari eta bila itzazu lagungarriak izan daitezkeen probak.

Laguntza juridikoa eta informazioa eskatu egoera horri amaiera emateko moduei buruz, baita erasotzailearentzako, enpresa edo organo administratiboarentzako ondorio legalei buruz ere (ondorio zibilak, penalak eta lanekoak).

Laguntza psikologikoa eskatu, egoerari eta zure garapen profesional eta pertsonalean dituen ondorioei aurre egiten lagunduko dizutenak.



Genero-indarkeriaren
Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

Halaber, hona ere dei dezakezu 900 840 111



Genero-indarkeriaren
Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

900 840 111

24 ordukoa
Dohainik
Isilpekoa



Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko **Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak** telefonoa jartzen du, emakume izate hutsagatik soilik, indarkeria jasaten duten emakumeen esku.



Genero-indarkeriaren edozein adierazpenaren, sexu-jazarpena eta jazarpen sexista barne, emakume biktimari laguntzen dion **profesional espezializatuek** erantzuten dute.



Berehalako arreta **anonimoa**, eman beharreko urratsen gaineko **orientazioa** eta **argibideak** emango dizkizute erantzun pertsonalizatua emateko, hala nahi izanez gero.

LEKU SEGURUA DA, INORK EZ DU JAKINGO
BERTARA DEITU DUZULA ETA GAINERA BERTAN
KASU EGITEN DIZUTELA SENTITUKO DUZU